


June Aiestaran Iparragirre

E maila • 2 saria

Apa!

Ni June Aiestaran naiz, 11 urteko neska beasaindarra. Alkartasuna Lizeoan 5. maila egiten ari naiz, eta aurten hasi gara bertsolaritza lantzen. Lehenengo aldia da idazlehiaketa honetarako bertsoak egiten ditudala, eta ilusio handia egin dit sari hau irabazi izanak. Espero dut zuen gustukoak izatea!



NAHI GABE, BERTSOTAN

Doinua: Mundu honetan holako gauzak

1.

Amaren tripan egoten nintzen
goxo-goxo erdi lotan,
hantxe barruan entzuten nuen
bera kantari askotan.
Geroztik beti bertsoa dago
etxeko hainbat txokotan,
sarri ibiltzen naiz ahizparekin
haserre eta borrokan,
baina azkenik ohartu gabe
ikasi dut nik bertsotan.

2.

Ezagutzen dut Amets Arzallus
ezagutzen dut Elortza,
Habaneraren neurri luzea
edo hamarreko motza.
Ezagutzen dut Bilboko BECa,
kartzela edo oholtza,
nahiz ahizparekin askotan naizen
ikaragarri zorrotza,
aitor dezadan bertsoak sarri
hunkitu ohi dit bihotza.